

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako ekonomiak atzera egiteari utzi dio bi urtez bilakaera negatiboa izan ondoren

Hirugarren hiruhilekoko BPGa % 0,0 izan da eta, hortik aurrera, hazkuntza positiboa izango dela aurreikusi da

Miércoles, 30 de octubre de 2013

Nafarroako ekonomiak % 0,0ko hazkuntza izan du 2013ko hirugarren hiruhilekoan, ia bi urtez BPGa negatiboa izan ondoren. Hala, aurreko hiruhilekoko emaitza lau hamartarren aldearekin hobetu da (-% 0,4) eta 2011. urtearen hasierako bigarren atzeralditik hasita izan duen beherakada eten da.

Urte arteko aldeei dagokionez, Nafarroako BPGak % 1,3 egin du behera hirugarren hiruhilekoan iazko denboraldi bereko balioarekin alderatuta, urten honen hasieran hasitako geroz eta beherakada txikiagoen joerari jarraituz (-1,7 eta -1,6 izan dira balioak aurreko hiruhilekoetan).

Estatu osoko ekonomiari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak gaur jakinarazi dituen datuen arabera, Espainiako BPGa % 0,1 da hiruhilekoari dagokionez, beraz, estatuko ekonomia ere atzeralditik atera da. Urte arteko aldeari dagokionez -% 1,2koa izan da aldaketa, Nafarroakoa baino zertxobait hobea.

Ehuneko absolutuetan adierazita, Nafarroako BPGa 2007ko urtearen amaierako krisiaren hasierako ehuneko bera da, hau da % 98,2. Espainian, aldiz, % 93,1 da ehunekoa. Horrek zera esan nahi du, Nafarroako ekonomiak BPGaren % 1,8 galdu duela, estatuko ekonomiak galdutakoa (% 6,9) baino hiru aldiz gutxiago.

2014rako ikuspegia

Lourden Goicoechea lehendakariordeak azaldu duenez, finantzen alorraren eta inguruko ekonomiaren egonkortasunak eragin du egoera, eta Nafarroan hazkuntza aktibatzea ahalbidetzen ari da. Alde batetik, kanpoko eskaria berreskuratzen ari da, uztailen eta abuztuan % 13,2 egin baitzuten gora esportazioek, hau da, industriaren sektoreko adierazleak hobetu egin dira. Adierazle horiek, gainera, inbertsiorako pizgarria dira, baita lan-merkatua leheneratzeko ere. Beste alde batetik, zifra positiboak indartzen direnean, kontsumitzaileen konfiantza ere handituko da. Horixe da barneko eskaria kanpoko eskariak eragiten duen bultzadara batzeko funtsezko elementua.

Nafarroako ekonomiaren bilakaeraren aurreikuspenei dagokionez, Lourdes Goicoecheak zera espero dela esan du, aurreko hiruhilekoan % 0,0 erregistratu ondoren, hazkuntzaren abiadurak pixkanaka gora egitea hurrengo urteko bigarren hiruhilekoan balio positiboak lortu arte.

Aurreikuspen horien arabera, 2013. urtea metatutako urteko % 1,4ko beherakadarekin amaituko da, 2012an gertatu zen bezalaxe, baina 2014an % 0,6ko hazkuntza izango da.